

Aliantza Feministak

Martxoak 8ko lantaldea (2026)

Martxoaren 8ko lantaldearen helburua da martxoaren 8ko egitaraua kolektiboki antolatzea. Lantaldea, 9 urteko ibilbidea duen arren, oraindik eraikitze- eta egonkortze-prozesuan dago.

Aurten ere, Martxoaren 8aren aterpean, Eibarko emakumeen eskubide-berdintasuna eta feminismoa aintzat hartzea eta aitortzea dugu helburu. Mota askotako jardueren bidez, diskriminazio-egoerekiko kontzientziaketa eta eraldaketa sustatuko ditugu.

Urtero osatzen dugun egitaraua gai ardatz bati lotuta egoten da, hain zuzen, parte-hartzaileen artean adosten den gai bati lotuta. Aurten, garrantzi berezia eman nahi diegu Aliantza Feministei, ikuspegi integratzaile eta dekolonial¹ batetik landuta.

Feminismoa eraldaketarako (politikoa, soziala, ekonomikoa, harremanetakoa ...) ezinbestekoa den paradigma eta mugimendu soziala da, gero eta konplexuagoak diren zapalkuntza-mekanismoei eta botere-harremanei aurre egin nahi diena, eta diskurtso LGBTIfobikoak, arrazistak eta klasistak desagerrarazteko lanean ari dena. Horregatik, aliantza feministak sortzea eta indartzea proposatzen dugu, estrategia kolektibo gisa.

Sistema zisheteropatriarkal² batean bizi gara, non ikuspegi kapitalista, kolonialista eta arrazista sustatzen diren. Feminismotik aldaketarako proposamen eta aldarrikapen bateratuak egin ditzakegu. Izan ere, LGBTIfobiak eta arrazakeriak lekurik izango ez duten indarkeria matxistarik gabeko bizitzaren alde egin nahi dugu.

Aliantza feministen helburua da egungo desberdintasunei eta bidegabekeriei aurre egitea. Hau da, sareak ehunduz, gizarte demokratikoagoa, gizatiarragoa eta bidezkoagoa sortzea. Eta, horrenbestez, pertsonak eta zaintzak lehen planoan jarriko dituen jendarte baterantz abiatzen hastea.

Aliantza horietatik lortuko dugu genero-harremanak eraldatzea. Aldi berean, emakumeen mendekotasuna, desberdintasunak eta bazterketa desagerraraziko ditugu. Horrela deuseztuko dugu indarkeria sexista, bakoitzaren identitateak, gorpuztasunak eta desioak errespetatuz, nahiz eta genero-arauekin bat ez etorri.

Azken urteetan egindako greba orokor feministak aliantza feministen adibide dira. Grebaren kontzeptuari esanahi berri bat eman zaio, eta emakumeok borroka politikoaren erdigunean jarri gaituzte.

Esandako guztiagatik, aliantza feministak sortzeko eta indartzeko programatutako jardueretan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu, herri eta jendarte feminista eraikitze bidean.

¹ **Dekolonialismoa:** Dekolonialismoa pentsamendu-korrante bat eta kolonizazioa kritikatzeko duen proiektu politiko bat da. Kolonialismoan zehar nagusitu ziren eta egungo gizartearen irauten duten botere-egiturak gainditu nahi ditu. Hierarkiak desagindatu (arrazan, generoan edota ezagutzen oinarritutakoak), mundu bidezkoagoa, anitzagoa eta ekitatiboagoa eraiki nahi du. Horrela, tokiko jakintzak eta mendebaldekoak ez direnak berreskuratu nahi dira.

² **Zisheteropatriarkatua:** gizon heterosexual zisgeneroa lehenesten eta normalizatzen duen sistema sozial eta kulturala da. Zisgenero kontzeptuak adierazten du genero-identitatea jaiotzean esleitutako sexuarekin bat etortzea.

Martxoak 8 lantaldea 2026



PROGRAMAZIOA

Martxoaren 2tik 31ra

ERAKUSKETA [ELE BITAN]	Greba orokor feministarantz	9:00 – 13:00 eta 16:30 – 19:30 Andretxea
---	--	--

LABURPENA

David Beorlegui Zarranzek egindako 'Greba orokor feministarantz' erakusketak ibilbide kronologiko eta tematiko bat proposatzen du, XIX., XX. eta XXI. mendeetan emakumeak protagonista izan diren hainbat mobilizazio-esperientzia publikoari hurbiltzeko. Historikoki metatutako esperientzia horiek esanahi berria ematen diote grebaren kontzeptuari, bizitza eta emakumeak borroka politikoaren erdigunean jartzen dituzte, eta inspirazio-iturri agortezinak dira, egungo bidegabekeriaren gainean indar handiz presionatzen dutenak eta oraindik etortzeko dauden borroka askoren bidea argitzen dutenak.

Martxoak 5, osteguna

LIBURU-AURKEZPENA [EUS]	Amaieratik hasi. Euskal Feminismoa, aldaketarako paradigma <i>Naia Torrealdei Mandaluriz eta Ekhiñe Petriati</i>	18:00 Andretxea
--	--	------------------------

LABURPENA

"Amaieratik hasi. Euskal feminismoa, aldaketarako paradigma" liburua Iratzar fundazioak eta Txalaparta argitaletxeak lankidetzan sortu duten Iparorratza bildumako hamargarren zenbakia da. Naia Torrealdaik liburu honetan feminismoetan bizirik dauden korapiloak izendatzen ditu, besteak beste. Ekhiñe Petriatirekin aurkeztuko du, eta, ondoren, gaiaren inguruko solasaldia egongo da.



Martxoak 8 lantaldea 2026



Martxoak 6, ostirala

HITZALDIA [GAZ]	Aliantza estrategikoak genero-indarkeria bikario eta instituzionalak desagerrarazteko <i>María Villalobos Gil</i>	18:00 Andretxea
----------------------------------	---	------------------------

LABURPENA

Hitzaldian genero-indarkeria aztertuko da, emakumeen bizitzaren kontrolean eta menderatzean oinarritutako indarkeria gisa; biolentzia mota hori eguneroko ekintzen bidez gauzatzen da eta seme-alabengan du eragin zuzena. Era berean, aztertzen da indarkeria bikarioa eta indarkeria instituzionala nola bihurtzen diren kaltea areagotzeko mekanismo, erakundeek babesteko betebeharrean huts egiten dutenean. Testuinguru horretan, aliantza feministak erresistentziarako, salaketarako eta ekintza kolektiborako gune gisa aurkezten dira.

Martxoak 8, igandea

Martxoaren 8ko mobilizazioekin bat



Martxoak 13, ostirala

ZINE FORUM FEMINISTA [GAZ]	<i>She said</i> <i>Pagatxa</i> <i>Yanire Sagredo Hernáez</i>	 18:30  Portalea, Areto Nagusia
---	--	--

LABURPENA

Maria Schraderrek zuzendu eta Rebecca Lenkiewicz idatzitako pelikula hau Jodi Kantor eta Megan Twohey erreportarien 2019ko lanean oinarrituta dago. Bi kazetari estatubatuarrek, New York Times-eko langileak izanda, Harvey Weinsteinek egindako emakumeen aurkako abusu eta jokabide sexual desegokiaren historia kaleratu zuten. Ikerketa honek #MeToo mugimendua eta Hollywoodeko sexu-erasoen inguruko isiluneak hausten lagundu zuen.

Martxoak 14, larunbata

TAILERRA [EUS]	Antzerki laborategi feminista <i>Aitziber Eguzkiza Samos</i>	 11:00 – 13:00  Andretxea <u>Izen-ematea:</u> martxoaren 13ra arte andretxea@eibar.eus 943543938 – 688853440 Andretxean: Isasi 11
-------------------------------------	--	---

LABURPENA

Antzerki Laborategi Eraldatzaileak Gestaltaren printzipioekin bat egiten du, eta Kontzientzia fisikoa, emozionala eta mentala hartzea du helburu. Hemen eta orain bizitzea, eta emakume bakoitza bere ekintzez eta emozioez arduratzea. Gure gorputzarekin konektatzeko ahalegina egingo dugu, gorputzari banaka zein taldeka entzunez; horretarako, geure burua eta elkar zaintzea hartuko ditugu oinarri. Jolasak protagonismo garrantzitsua hartzen du, barneratuta daramatzagun programatutako arauen kohesioa eta desmekanizazioa lortzeko.

Beraz, gonbidatuta zaude lotsak kentzera, solastatzera, gozatzera, ezagutzera, barre egitera, ikustera, ahalduntzera, forma berriak probatzera, estereotipoak haustera... Zeure buruari egunerokoan eskaintzen ez diozun denbora eskaintzera.

Martxoak 8 lantaldea 2026



Martxoak 15, igandea

MENDI-IBILALDIA ETA TOPAKETA [ELE BITAN]	Emakumeen mendiko ibilaldia <i>Eibarko Klub Deportiboa</i>	10:00 – 13:00 Deporreko Portalea <u>Izen-ematea:</u> martxoaren 13ra arte andretxea@eibar.eus 943543938 – 688853440 Andretxean: Isasi 11 Deporreko web-orria: www.deporeibar.com/mendia
---	--	--

LABURPENA

Emakumeentzako mendi-itzulia Eibar inguruan, Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko.

Elkarrekin sortzen dugun energia guztia sentitzeko jai giroko eguna izango da. Aliantza bat sortu nahi dugu, batzen gaituen guztia kontuan hartuz, jaio garen lekua, kultura edo adina aintzat hartu barik. Eta, horretarako, naturak testuinguru ezin hobea eskaintzen digu.

Hiru orduko buelta lasai bat izango da, eta bidea markatuta eta gidatuta egongo da.
Amaitzeko, hamarretako txiki bat egingo dugu Depor Tabernan.

Parte-hartzea librea bada ere, aldeztu aurretik izena emateko eskatzen diegu interesdunei, hamarretakoa antolatzeko.



Martxoak 8 lantaldea 2026



Martxoak 19, osteguna

ERAKUSKETAREN AURKEZPENA [GAZ]	Zaintzaren taupada <i>Merlin Medina Acosta</i>	18:00 Arrate Kultur elkarte
--	--	------------------------------------

LABURPENA

Zaintza, Eibarko bizitzari eusten dion taupada kolektibo gisa. Emakume migratuak taupada horren protagonista: askotarikoak, indartsuak, ikusezinak eta ezinbestekoak.

Titulu honek bizitzaz hitz egiten du, presentziaz, gizatasunaz, bizitzari eusten dion baina ia inoiz ezagutzen ez den zerbaitez.

Martxoak 24, asteartea

EMAKUMEEK HISTORIA EGITEN izeneko SAIOA [GAZ]	Bideo-foruma: Nevenka <i>Pagatxa</i> Patricia Perez Coto	17:00 – 19:00 Andretxea
---	---	--------------------------------

LABURPENA

Pelikulak 2001ean, Nevenka Fernández Ponferradako Udaleko Ogasun zinegotziak Ismael Álvarez alkatearen aurka sexu-jazarpenagatik eta lan-jazarpenagatik jarritako salaketa kontatzen du. Salaketa hori aitzindaria izan zen Espainian, lehen aldiz politikari bat epaiketara eraman baitzuten horrelako delituengatik.

Gaur egun, haren historia garrantzitsua da oraindik ere, eta “Soy Nevenka” eta antzeko kultur lanen bidez berreskuratu da. Halako lanek gonbidatzen gaituzte lortutako aurrerapenei eta gizartean oraindik irauten duten erresistentziei buruz hausnartzera.

Saio honetan, bere historia hobeto ezagutzeko aukera izango dugu, baita historia horrek gizartean izan duen eraginari buruz kolektiboki hausnartzeko aukera ere, besteak beste.



Martxoak 8 lantaldea 2026



Martxoak 26, osteguna

ANTZEZLANA [EUS]	Zanbuila <i>Lolak kolektiboa</i> Antzezleak: <i>Irene Hernando, Amaia Ortiz de Galarreta eta Esti Curiel</i>	 19:00  Coliseoa
---------------------------------------	---	---

LABURPENA

Itziarri, gau batean izozkailutik arraina ateratzera joan eta lurrera eroriko zaio. Arrain izoztua jaustean, bitan zatituko da: burua alde batetik, isatsa bestetik, eta erdian arrautza ugari. Horiek ere izoztuta. Gure protagonista shock egoeran geratuko da, bera ere bitan banatuta. Izoztuta dituen bere obuluez gogoratu, eta sofán eseriko da. Telebista piztuko du, arrain eta arrantza-dokumentalak ikusten hasiko da gertatu denari erantzun bat aurkitu nahian. Une horretan bertan: “Din-Don!!!”, goiko Maritxu eskuetan berdel bat zintzilik duela. Hemen dauka erantzuna: herriko emakumeak dira Itziar salbatuko duten sarea. Antzezlari honetan kostaldeko hainbat emakumerekin izan ditugun elkarriketen ondorioz, euren historia kontatzea beharrezkoa dela sentitu dugu. Hori da “Zanbuila”, ikusi eta entzuten ez diren emakumeen aurpegi eta ahotsak plazaratzea. Urteetan euskal kostaldeko herriaren sostengu izan direnei omenaldia egingo diegu. Azken finean, izan zirelako gara. “Zanbuila” antzezlana 3 aktorek sortu eta antzeztuko dugu. Umorea, poesia eta erritmoa erabiliz bidaia hunkigarri batean murgilduko gara, istorio errealak oinarri izanik; kresal usaina darion fikziozko ikuskizuna izango da, pertsonaia ugari dituen.

Martxoaren 8ko "Aliantza feministak" irakurketa gida, Juan San Martín liburutegiarekin batera

